

BEASAINGO UDALA

Dirulaguntza deia: XXXVI.BEASAIN IDAZLEHIAKETAREN oinarri arautzaileak onartzea 2025-2026 ikasturterako

Argitara ematen da deialdiaren laburpena dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoari jarraituz. Testu osoa Dirulaguntzen Datutegi Nazionalean kontsulta daiteke: (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>).

1. Dirulaguntzaren xedea.

Beasaingo Udalak, eskualdeko hainbat ikastetxeren laguntzarekin, BEASAIN IDAZLEHIAKETA antolatzen du. Oinarri hauen helburua lanak aurkeztearekin hasi eta saritutako lanak argitaratzearekin amaitzen den idazketa-lehiaketaren alderdi garrantzitsuak arautzea da.

2. Dirulaguntza eskatzeko bete behar diren baldintzak

- * A mailan: 2008 eta 2009 urteetan jaio eta Beasaingo, Ordiziako edo Lazkaoko irakaskuntza ertainetako Ikastetxeetan ikasten dabilzan ikasleak edota, Beasainen erroldatuta egonik, beste nonbait irakaskuntza ertainetan ikasten dabilzan adin berekoak izan daitezke.
- * B mailan: 2010 eta 2011 urteetan jaio eta Beasaingo, Ordiziako edo Lazkaoko irakaskuntza ertainetako Ikastetxeetan ikasten dabilzan ikasleak edota, Beasainen erroldatuta egonik, beste nonbait irakaskuntza ertainetan ikasten dabilzan adin berekoak izan daitezke.
- * D mailan: 2012 eta 2013 urteetan jaio eta Beasaingo, Ordiziako edo Lazkaoko irakaskuntza ertainetako Ikastetxeetan ikasten dabilzan ikasleak edota, Beasainen erroldatuta egonik, beste nonbait irakaskuntza ertainetan ikasten dabilzan adin berekoak izan daitezke.
- * E mailan: 2014 eta 2015 urteetan jaio eta Beasaingo Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetan ikasten dabilzan ikasleak.
- * F mailan: 2016 eta 2017 urteetan jaio eta Beasaingo Lehen Hezkuntzako Ikastetxeetan ikasten dabilzan ikasleak.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

A mailan:

Prosazko atala

1. saria: 210 € eta oroigarria
2. saria: 150 € eta oroigarria
3. saria: 90 € eta oroigarria

Eta 3 aipamen: 50 euro eta diploma

Olerki-atala

1. saria: 210 € eta oroigarria

2. saria: 150 € eta oroigarria

Eta 2 aipamen: 50 € eta diploma

Bertso-atala

1. saria: 210 € eta oroigarria

2. saria: 150 € eta oroigarria

Eta 2 aipamen: 50 € eta diploma

B mailan:

Prosazko atala

1. saria: 180 € eta oroigarria

2. saria: 130 € eta oroigarria

3. saria: 80 € eta oroigarria

Eta 3 aipamen: 50 € eta diploma

Olerki-atala

1. saria: 180 € eta oroigarria

2. saria: 90 € eta oroigarria

Eta bi aipamen: 50 € eta diploma

Bertso-atala

1. saria: 180 € eta oroigarria

2. saria: 90 € eta oroigarria

Eta bi aipamen: 50 € eta diploma

D mailan:

Prosazko atala

1. saria: 150 € eta oroigarria
 2. saria: 110 € eta oroigarria
 3. saria: 70 € eta oroigarria
- Eta 3 aipamen: 50 € eta diploma

Bertso-atala

1. saria: 150 € eta oroigarria
 2. saria: 80 € eta oroigarria
- Eta 2 aipamen: 50 € diploma

E mailan:

Prosazko atala

1. saria: 120 € eta oroigarria
 2. saria: 85 € eta oroigarria
 3. saria: 50 € eta oroigarria
- Eta 3 aipamen: 25 € eta diploma

Bertso-atala

1. saria: 120 € eta oroigarria
 2. saria: 60 € eta oroigarria
- Eta 2 aipamen: 25 € eta diploma

F mailan:

Prosazko atala

1. saria: 90 € eta oroigarria
 2. saria: 60 € eta oroigarria
 3. saria: 30 € eta oroigarria
- Eta 3 aipamen: 25 € eta diploma

4. Eskaerak non eta noiz aurkeztu

Parte hartzen dutenek ikasketak egiten dituzten ikastetxeetan aurkeztuko dituzte lanak. Hauek lehenengo aukeraketa bat egingo dute.

Ikastetxeek Beasaingo Udalak helburu horretarako sortutako web aplikazioaren bitartez aurkeztuko dituzte aukeratutako lanak. Lanak aurkezteko epea 2026ko otsailaren 20an amaituko da 14:00etan.

Aurkeztu beharreko lanen gehieneko kopurua:

- Lehen Hezkuntzan (E eta F mailak) 3 lan gela eta atal bakoitzeko.
- DBHn eta batxilergoan (A, B eta D mailak) 2 lan gela eta atal bakoitzeko.

Ikasle bakoitzak lan bakarra aurkeztu ahal izango du maila eta atal bakoitzeko (prosa, poesia eta bertsoa).